

# Irratsaioa Igantziko eskolan

## HELBURU NAGUSIA

*Euskara izanik gure ingurune naturalean aho hizkuntzarik hedatuena, berau indar dezaketen hezkuntza materialak sortzea.*

## EKINTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Ahozko ulermena zein ahozko ekoizpena lantzeko aukera ugari ematen ditu.

Hizketa formala denez, aitzinetik prestatu behar da. Horrek aukera ematen die gaiari buruz interesatzen zaien informazioaren gainean hausnartzeko eta gidoia prestatzeko.

## HELBURUAK

Irratiko saio bat prestatzea.


Elkarrizketaren atalak identifikatzea.

Gaiari egokitutako galderak formulatzea.

Saioko hasierako, tarteko eta bukaerako esamoldeak erabiltzea.

Ahoskera egokia erabiltzea.

Irratsaioan emititzeko iragarkiak prestatzea, ahoz eta idatziz.



## EDUKIA ETA ESKOLAKO PLANGINTZA

### Kontzeptuzko edukiak

- Irratsaio motak
- Irratiko elkarrizketak
- Elkarrizketaren atalak
- Galdera motak
- Iragarkien osagaiak

### Prozedurazko edukiak

- Irratsaioaren informazioa identifikatu eta sailkatu.
- Irratsaioaren informazioa baloratu.
- Erantzuna entzun eta galdera inferitu
- Soinuak, ahotsak... hizkuntzaz kanpoko elementuak erabili.
- Gaiak eta azpigaiak identifikatu testuan.
- Testuaren oinarrian egon daitezkeen galderak identifikatu.

### Jarrerazko edukiak

- Arazoen aitzinean iritzia izan eta azaltzeko gogoia izatea.
- Bertzeen iritzia aditzeko jarrera baikorra.
- Arazoak konpontzeko borondatea agertzea.



## EKINTZAREN DESKRIPZIOA

Sekuentziazioa	Hilabete bat lehenago prestatzen hasi aste batez emanen den zuzeneko irratsaioa.
Irakaslearen esku hartzea	Guziaren ardatza: gidoia, rol banaketa, entseguak, zuzeneko emanaldia.
Ikasleen lana	Informazioa bilatzea eta antolatzea, entseguak, auto-zuzenketa, zuzeneko emanaldia.
Ekintzak	Prestaketa saioak Zuzeneko emanaldia: aste batez egunero bi orduz.
Baliabideak	Edozein motatako material idatzia, Xorroxin Irratiko ekipoa, grabagailua, elkarrizketatiak (eskolaz kanpokoak)

## EKINTZAREN BALORAZIOA

Urte franko dira ekintza hau egiten dugula. Ikasleek aho hizkuntza, ahoskera, erritmoa... zaindu behar dute zuzeneko emanaldian.

Orokorrean, hagitz gustura egoten dira eta ilusioz beteta hartzen dute gaia.

## JARDUERA ESKOLAZ KANPO ZABALDU

- Zuzeneko irratsaioa da. Antena bati esker, herri osoak aditu dezake.
- Elkarrizketetarako eskolaz kanpoko jendea bilatzen dugu.
- Irratiari esker, herrikoak diren kontu zahar eta berriak zabaldu eta lantzen dira.